

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA

ERRALDOIEN ARRANTZA

SARIA:
Lesakako
BEKO mintegian
60 euroko
erosketa

2016ko APIRILA 147. ALEA



IKA BAKURLAN

BALEEN ARRANTZA

Zenbaiten ustez, Euskal Herria bi zatitan bana daiteke: kostaldea eta barnealdea. Kostaldeko bizimodu desberdinak garatu dira, batere zerikusirik ez dutenak lur barneko bizimoduekin.

Euskal Herrian arrantzak historian zehar izan duen eta gaur egun duen garrantzia aztertzean balearen protagonismo berezia duela erran daiteke. Lehendabiziko berriek XI. menderaino garatuzate, 1059. urtean Baionan balea haragia saltzen zela topatzen baitugu. Jarduera horrek piratekin zerikusia duela erran dezakegu, lehendabiziko kortsarioak balea arrantzaleak baitziren. XIV. mendearen hasieran Bizkaiko golkoaren itsasertzean aritzen ziren sardako baleak harrapatzen: Getarian, Lekeitio... Herrietako talaian zelatatzen zegoen talaieroak edo zaindariak balea ikusten zuenean, ezkilak jotzen zituen abisua emanez. Arrantzaleek lasterka txalupak hartzen zituzten eta orduan hasten zen arpoiaz jotzeko lasterketa. Lehendabiziko jotzen zuenak eskubideak izaten zituen animaliaren salmenta kudeatzeko. Horrek liskarrak sortu ohi zituen herritarren artean.

XIV. mendean baleen kopurua gutxitzeak, Islandia edo Ternuan harrapaketak egitera behartu zituen gure arrantzaleak. Aldaketa horretan kabotaje teknikaren hobekuntzak azpimarratu behar dira, bidaia luze hori ahalbidetu baitzitzairen. Itsas zabalean arrantza egiteko beharrezkoa zen kofradiek, udalek edo enpresaburuek espedizioak ordaindu eta antolatzea.

Herriei zekarzkiten etekin handiak zirela eta, baleazaleen arteko norgehiagokak areagotu egin ziren. Mozkinik handienak gantzetatik zetozkien. Gantza behin olio bihurturik, argitzaile-sistemarako erabiltzen zen, ke eta usainik bota gabe erre zitekeelako.

Haragia gatzuneetan jarri eta Frantzia saltzen zen. Espainian ez, garraio-bideak garatu gabe zirelako eta horrek zailtasunak sortzen zituelako. Hezurdura eraikuntzarako material gisa erabiltzen zuten, apaingarriak eta altzariak egiteko. Merkataritza mota hori hagitz garrantzitsua izan zen.

Ipar Atlantikoan Euskal Herriko arrantzaleen lehendabiziko aipamena 1412. urtekoa da. Islandiarren eta hemengo baleazaleen arteko harremanak gorabeheratsuak izan ziren. Kanadako itsas-bazterretan eginiko lehendabiziko urratsak kondairaz beteta daude: harrapaketen tokiak sekretuz mantentzen zirela, kabotaje teknika hemendik eraman zela... Batzuek diote 1375. urtean Kanadara ailegatu zirela, hau da, Cristobal Colon baino lehenago. Egiaztatzea zaila denez... kondairatzat hartzen segituko dira bitxikeria horiek guztiak. Beste teoria batzuek diotenez, baleazale piraten erasoek desagerrarazi zituzten Groenlandiako azken bikingoen koloniak.

Arrantzaleak, baleak harrapatzen ez ezik, larru-bilketan eta bakailao-arrantzan ere ibili ziren. Jarduera horietan sortutako merkataritza-harremanen eraginez, bertakoek euskarazko bi **pidgin* sortu zituzten: euskara-islandiera (Islandian) eta algonkin-euskara (Kanadan). (Ale honetako bitxiloreetan horixe landuko dugu).

Balearen arrantza gogoratzeko, Euskal Herriko kostaldeko herri askok baleak irudikatu dituzte beren armarrietan: bortz Lapurdin, lau Gipuzkoan eta bortz Bizkaian (ale honetan ere zehaztapenak emanen ditugu)

LAN ETA LAN

Baleen arrantza irakurgaitik esaldi batzuk arrantzatu ditugu zuek erranahia aldatu gabe eta beheko elementuak erabiliz berridazteko.

1. Bizimodu desberdinak garatu dira, batere zerikusirik ez dutenak lur barneko bizimoduekin.

_____n_____ dira.

2. Lehendabiziko berriek XI. menderaino garamatzate, 1059. urtean Baionan balea haragia saltzen zela topatzen baitugu.

_____eramaki
_____eta.

3. Eta orduan hasten zen arpoiaz jotzeko lasterketa.

_____ekiten_____ari.

4. Islandia edo Ternuan harrapaketak egitera behartu zituen gure arrantzaleak.

_____izan zuten_____.

5. Herriei zekarzkieten etekin handiak zirela eta, norgehiagokak areagotu egin ziren.

_____zizkieten_____gatik,_____.

6. Mozkinik handienak gantzetatik zetozkien.

_____heldu_____.

7. Batzuek diote 1375. urtean Kanadara ailegatu zirela, hau da, Cristobal Colon baino lehenago.

_____arabera,_____etik.

8. Diotenez, baleazale piraten erasoek desagerrarazi zituzten Groenlandiako azken bikingoen koloniak.

Erraten dute_____gatik desagertu_____.

9. Arrantzaleak, baleak harrapatzen ez ezik, larru-bilketan eta bakailao-arrantzan ere ibili ziren.

_____gain_____.

10. Euskal Herriko kostaldeko herri askok baleak irudikatu dituzte beren armarrietan.

_____hainbat_____irudiak_____.



BERTSO KANTARI

BALEAREN BERTSOAK

Bertso hauetan, euskaldunek Bizkaiko golkoan harrapatu zuten azken balearen kronika egiten da. Orioko Orbegozo apaizak idatzi zituen arren, Benito Lertxundik egindako Balearen bertsoak bertsoarekin egin ziren famatu. Istorioa ongi ulertzeko, behean ageri diren hitzekin osatu beharko dituzue bertsoak.

1/ Mila bederatzieun da
lehenengo1....
Maiatzaren amalau
garren egunian
....2.... herriko
barraren aurrian.
Balia agertu zan
beatzik aldian.

2/3.... bazan ere
azkar ibilian.
Buelbaka han zebilen
....4.... da etorrian.
Ondarra arrotuaz
murgil igarian.
Zorriak zeuzkan eta
haiek bota nahian

3/ Ikusi zutenian
hala zebilela
beriala jun ziran
....5.... bila.
Arpoi ta dinamitak
eta soka bila.
Aguro ekartzeko
etzan jende hi

4/ Bost treñero juan ziran
....6.... banarekin.
Mutil bizko bikain
gutziz onarekin.
Manuel Olaizola
eta Loidirekin.
Uranga, Atxaga ta
Manterolarekin.

5/7.... egindako
salto ta marruak
ziran izugarri ta
ikaratzekuak
atzera egin gabe
hango arriskuak
....8.... hil zuten
han ziran hangoak.

6/ Bost txalupa jiran da
erdian9....
gizonek egin zuten
bain nahiko pelia.
Ikusi10....
hil edo itoa
legorretikan ba zan
biba ta txaloa.

7/ Hamabi metro luze
gerria hamar11....
Buztan pala lau zabal
albueta para bi.
Ezpañetan bizarrak
beste ilera bi
orraziak bezala
ain zeuzkan ederki.

8/ Gorputzez zan mila ta
berreun arrua.
Beste berreun mingain
ta tripa barruak.
Gutxi janez etzegon
batere galdua.
Tiñako sei12....
izan zan saldua.

9/ Gertatua jarri det
egiaren alde.
Hau horrela ez ba da
jendiari galde.
Bihotzez pozturikan
atsegintsu gaude.
Gora13....!
esan bildur gabe.

*oriotarrak – joan – pesetan – Haundia – balia –
lodi – Orioko – Baliak – treñeruen – patroï – zutenian –
arpoiakin – Urtean*

1-.....	5-.....	8-.....	11-.....
2-.....	6-.....	9-.....	12-.....
3-.....	7-.....	10-.....	13-.....
4-.....			

PIDGINAK

BITXILOREAK

Pidgina, itsasoan edo merkataritza guneetan sortzen zen hizkuntzen arteko nahasketa bat da, bertan, elkartzen ziren herrialde ezberdinen hizkerak biltzen ziren. Horrela, euskaldunek baleak ehizatzen zituzten garaian, Kanadako herritarren eta euskaldunen arteko harremanak pidgin bat sorrarazi zuen, algonkin-euskara deitutakoa. Gauza bera gertatu zen Islandiako herritarrekin izan zuten erlazioarekin, hortik bertze pidgin bat sortu baitzen: euskara-islandiera. Beheko aldean hizkuntza hauetako adibideak dituzue eta euskarazko baliokideak aurkitu beharko dituzue.

Bi hizkuntza berri horiek oinarri-oinarrizkoa den gramatikaz eta hiztegi murriztaz osatzen ziren. Hori nahikoa zen hizkuntza horren asmoa betetzeko, hau da, elkarrengandik hain diferenteak ziren hizkuntzetan egiten zuten bi gizataldeen arteko komunikazioa errazteko.

Euskara-islandiera pidginari dagokionez, XX. mende hasieran, Jón Helgason izeneko filologo eta poeta daniarmarkarrak aurkikuntza garrantzitsu bat egin zuen, hizkuntza hori aipagai zuen bi hiztegi aurkitu baitzituen Kopenhagengo Unibertsitateko liburutegian: Vocabula gallica ("Frantsesezko hiztegia") eta Vocabula bifcaica ("Bizkaierako hiztegia"). XVII. mende bukaera eta XVIII. mende hasieran kokatzen diren eskuizkribu horietan, eguneroko hitzak, balea ehizarekin erlazioa duten hitzak eta bere inguruarekin lotutakoak aurki daitezke.

Hiztegien egileak ezagutzen ez diren arren, ikertzaileen arabera, jarduera horretan aritzen ziren Euskal Herriko arrantzaleak izan ziren, bertako biztanleekin lotura estua izan zutenak. Izan ere, eskuizkribuek batez ere lapurterazko hitzak dakartzate, tartean, frantsesa, gaztelania eta ingelesaren ekarpenak ere biltzen dituztelarik.

Algonkin-euskara pidginari buruz, bi hizkuntza amerindiarrek (mikmakera eta innuera) eta euskarak osatzen zutela erran dezakegu. Zenbait gaskoi hitz ere bazituen, Ipar Euskal Herrian gaskoiz ere egiten zenez gero. Euskaldunak 1527. urte inguruan ailegatu omen ziren eskualde hartara, Ternua eta Labradorrera, eta hiru urte geroago hasi omen ziren pidgina erabiltzen.

1. Sumbatt galsardia for?
2. For mi presenta for ju biskusa eta sagarduna.
3. Ania, kir kapitana?
4. Ungetorre.
5. Gianzu caca.
6. Christ Maria presenta for mi balia, for mi, presenta for ju bustana.
7. Presenta for mi berrua usnia eta berria burra.
8. For ju mala gissuna.
9. Presenta for mi locaria.
10. Nola zaude? Apezak obeto.

- a. Bixkotxa eta sagardoa emango dizkizut.
- b. Zenbat galtzerdiatik?
- c. Kristo eta Mariak balea ematen didatenean emango dizut buztana.
- d. Janzazu kaka.
- e. Anaia, kapitaina al zara?
- f. Emadazu esne beroa eta gurina berria.
- g. Ongi etorri.
- h. Eman niri lokarriak
- i. Nola zaude? Apaizak hobeto.
- j. Gizon gaiztoa zara.


1- 2- 3- 4- 5- 6- 7- 8- 9- 10-



HITZAK dantzan

Horra garai bateko itsasontzi eder baten marrazkia. Atalak hobeki ezagutzekotan, lot itzazu zenbakiak eta beheitiko hitz eta definizioak.

ERNE SARIRAKO!



- A.- **ABABOR:** ontziaren ezkerraldea, txopatik brankara begiratua.
- B.- **AINGURA:** burdinazko edo altzairuzko pieza, arpoi edo amu bikoitz formakoa, kate batetik zintzilik ur-hondora egotzi eta bertan finkaturik gelditzen delarik untzia higitzea eragozten duena.
- C.- **ARPOIA:** baleak harrapatzeko tresna; zurezko kirten luzea du eta burdinazko punta zorrotza eta gakoduna.
- D.- **ARRAUNA:** haga luzea eta buruzapala, eskuz eraginda ontzia mugitzeko edo zuzentzeko.
- E.- **BIZKARRA:** ontziaren goiko gainazala, karelak inguratua.
- F.- **BRANKA:** itsasontziaren aitzinaldea.
- G.- **ESLORA:** itsasontziaren luzera, txopatik brankara bitartekoa.
- H.- **ISTRIBOR:** ontziaren eskuinaldea, txopatik brankara begiratua.
- I.- **KALATUA:** itsasontzi batek urpean duen zatiaren luzera bertikala.
- J.- **TXALUPA:** arraunez higiarazitako itsasontzi txikia.
- K.- **TXOPA:** itsasontziaren gibelaldea.
- L.- **UPELA:** edozein likido gordetzeko edo garraiatzeko erabiltzen den zurezko ontzi gerrizabala...

A - ___	D - ___	G - ___	J - ___
B - ___	E - ___	H - ___	K - ___
C - ___	F - ___	I - ___	L - ___

ERANTZUNAK



LAN eta LAN (3. or.): 1- Lur barneko ... zerikusirik ez duten bizimoduak ...; 2- ... eramaki gaituzte ... topatzen dugu eta.; 3- ... ekiten zioten ... lasterketari; 4- ... egiteko beharra izan zuten gure arrantzaleek.; 5- ... ekartzen/ekarki zizkieten etekin handiengatik ...; 6- ... heldu zitzaizkien.; 7- Batzuek diotenaren/Batzuen arabera ... Colonen aitzinetik/aurretik.; 8- ... erasoengatik desagertu zirela ...; 9- ...harrapatzeaz gain, ...; 10- ... hainbat herrik ... baleen irudiak dituzte ...

BERTSO KANTARI (4. or.):

1-Urtean; 2- Orioko; 3- Haundia; 4- joan; 5- treñeruen; 6- patro; 7- Baliak; 8- arpoiakin; 9- balia; 10- zutenian; 11- lodi; 12- pesetan; 13- oriotarrak

BITXILOREAK (5. or.): 1- b; 2- a; 3- e; 4- g; 5- d; 6- c; 7- f; 8- j; 9- h; 10- i

146. aleko sariketa erantzunak – IZENAK IZAN (2-3. or.): 1. b); 2. d); 3. a); 4. i); 5. g); 6. c); 7. h); 8. e); 9. f)

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **6. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria:

**Lesakako BEKO mintegian
60 € erosketa**

146. aleko irabazlea:


**Maite Oteiza Apetzetxea
Iruritakoa**

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak apirilaren 27a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

HITZAK DANTZAN (6. or.):

A - _____ D - _____ G - _____ J - _____


B - _____ E - _____ H - _____ K - _____

C - _____ F - _____ I - _____ L - _____




BALEAK eta ARMARRIAK


Gure kostaldeko herrien armarriei erreparatzen badiegu, balearen arrantzak bertan izan zuen garrantzia aise antzeman ahal izanen dugu. Hondarrribian, Hendaian, Biarritzen, Bermeon, Mutriku, Lekeitio... herri horietako guzietako armarrietan aurkituko dugu animalia preziatu horren irudia. Hona hemen adibide batzuk:




HENDAIA



ONDARROA



GETARIA (LAPURDI)



BIARRITZ



HONDARRIBIA



ZARAUTZ



MUTRIKU



LEKEITIO



BERMEO

Aldizkari honen egileak:

Bortziriak eta Malerrekako IKA Euskaltegiak

Diseinua, marrazkiak eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

Bortziriak eta Malerrekako EUSKARA MANKOMUNITATEAK eta Baztango Udala



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka
Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.

bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

